

EUSKADIKO LANBIDE-KONPETENTZIAK EBALUATZEKO ETA EGIAZTATZEKO PROZEDURAKO IZANGAIAREN GIDA

1.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Prozeduran parte hartu nahi dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. EAEn izatea egoitza.
2. Espainiar nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerriartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.
3. Izena emateko eskabidea aurkezten den unean 18 urte beteak izatea, 1. mailako kualifikazioei dagozkien kompetentzia-atalen kasuan; eta 20 urte, 2. eta 3. mailakoen kasuan.
4. Egiaztatu nahi diren kompetentzia profesionalekin zerikusia duen lan-esperientzia edo prestakuntza izatea:
 - 4.1. Lan-esperientziaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 15 urteetan, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia justifikatzea eta, gutxienez, lan egindako 2.000 ordu. I. mailako kompetentzia-ataletarako, 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, eta, gutxienez, lan egindako 1.200 ordu.
 - 4.2. Prestakuntzaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 10 urteetan, gutxienez 300 orduko prestakuntza justifikatzea. I. mailako kompetentzia-ataletarako, gutxienez 200 ordu eskatuko dira. Egiaztatu nahi den kompetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluek iraupen laburragoa dutenean, modulu horietan ezarritako ordu kopurua egiaztatu beharko da.
 - 4.3. Balioetsiko diren kompetentzia profesionaleko atalek betekizun gehigarriak badituzte haien izaeragatik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak izatea.

2.- IZENA EMATEKO ORIENTABIDEAK

Prozeduran izena emateko eskaera

1. Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak.
2. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek IV. ERANSKINEKO eredu ofiziala erabili beharko dute izen-ematea formalizatzeko; web-orri honetatik deskarga daiteke eranskin hori: <https://ivac-eei.eus/eu/kompetenzien-aitorpena/> Eskabidearekin batera, historia pertsonala eta prestakuntzarena entregatu behar dira – vitaea prestatzeko Europako ereduaren arabera eginak–, eta 4. artikuluan adierazten den dokumentazioa ere bai. Ebazpenaren II. Eranskinean jasota dauden ikastetxe eta egoitzetan eman daiteke izena.
3. Eskabidean akats edo zehaztugabetasunen bat atzeman ez gero, hutsa edo ez-egitea zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari. Hala egiten ez badu, interesdunak eskaeran atzera

egin duela joko da, 39/2015 Legearen 21. artikuluan adierazitakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

4. Baldintza guztiak ez betetzeak edo datu faltsuak emateak berekin ekarriko du prozeduran parte hartzeko eskubidea galtzea. Eskatzaileen erantzukizuna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatea. Dokumenturen bat egiazkoa ez bada, prozeduran parte hartzeko eskubidea bertan behera geldituko da, desadostasuna noiz aurkitu den gorabehera, eta ezertan eragotzi gabe hautagaiak izan lezakeen erantzukizuna.

Prozeduran izena emateko dokumentazioa

Izena emateko eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, betekizunak betetzen direla egiaztatzeko:

1. Udal-eroldaren ziurtagiria, EAEko egoitza egiaztatzen duena.
2. NANaren edo AIZren fotokopia edo Europar Batasuneko herritartasunaren erregistroaren ziurtagiria (edo jatorrizko herrialdeko nortasun-agiria, edo indarrean dagoen pasaportea), edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela, edo Espainian bizitzeko edo lan egiteko indarrean dagoen baimenaren titular izatea.
3. Egiaztagiri bat, ebazpen honen 2.4 artikuluan ezarritako baldintzaren bat betetzen dela adierazten duena:

- 3.1 Prestakuntza ez-formala alegatzen bada, hura justifikatzeko zenbait dokumentu aurkeztuko dira, eskatutako konpetentzia-ataletan prestakuntzako gutxieneko ordu-kopurua bete izana egiaztatuko dutenak; dokumentuotan honako hauek zehaztuko dira: prestakuntzaren edukiak eta orduak, zer erakundek eta noiz eman zuen eta adierazpen formal bat, baieztatzen duena prestakuntza gainditu dela edo ebaluazio positiboa edo aprobetxamendua lortu dela.

Prestakuntza ez-formal horrek lotuta behar du egiaztatu nahi diren konpetentzia-atalekin.

Prestakuntza ez-formalaren iraupena kreditutan adierazten bada, zehaztu beharko da zein den haren baliokidetasuna orduan

- 3.2 Lan-esperientzia alegatzen bada, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- 3.2.1 Soldatako langileen kasuan:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria, non adieraziko baitira enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia.
- Lan-esperientzia eskuratu duten enpresaren lan-kontratua edo ziurtagiria, non berariaz adieraziko baitira kontratuaren prestazio-aldien iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori giten emandako denbora.

- 3.2.2. Langile autonomoen edo norberaren konturako langileen kasuan:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, non adieraziko baitira enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia.

- Erantzukizunpeko adierazpena, non azalduko baita zer jarduera egin den eta zer denbora-tartean egin den.

3.2.3. Langile boluntarioen edo bekadunen kasuan:

- Laguntzen jardun den antolakundearen ziurtagiria, non datu hauek jasoko baitira berariaz: zer jarduera eta funtzio egin diren, zer urtetan eta zenbat ordu eskaini diren guztira (baremazio-helburuetarako, orduen kopurua zati zazpi egingo da egun kopurua kalkulatzeko)

3.3 Kasu guztietan, honako hauek deskribatzen dituen dokumentazioa erantsiko dira:

- a) Egindako jarduera, eta jarduera horrek eskatutako kompetentzia-ataletako batekin duen harremana.
- b) Noiztik noiz arte egin den jarduera hori.

Webgune honetan eskura daiteke ziurtagiri-eredua: <https://ivac-eei.eus/eu/kompetenzien-aitorpena/>.

4. Baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak eta haien kopiak aurkeztu beharko dira.
5. Aurreko artikuluan adierazita dauden lan-esperientziaren edo prestakuntzaren baldintzak betetzen dituzten 25 urtetik gorako pertsonak ezin badituzte betekizun horiek egiaztatu artikuluan jasotako dokumentuen bidez, eska dezakete prozeduran izena ematea behin-behinekoz; horretarako, Zuzenbidean onartuta dagoen frogaren bat aurkeztu beharko dute, lan-esperientzia edo prestakuntzako ikaskuntza ez-formalak egiaztatzeko.

Onartzeko prozedura

1. Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonak onartzeko edo baztertzeko, lehenik eskabideak aztertuko dira, eta, ondoren, baldintzak betetzen dituztenei jakinaraziko zaie prozeduran parte har dezaketela, eta pertsona horiek aholkularitza-fasera igaroko dira. Baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, berriz, prozeduratik baztertzeko dira, eta azalduko zaie zergatik ezin duten prozeduran parte hartu.
2. Aholkularitza eta ebaluazio faseak 1224/2009 Errege Dekretuan gai horri buruz xedatuta dagoenarekin bat etorriko dira.

3.- PROZEDURAREN FASEAK

Kompetentzia profesionala ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurak honako fase hauek ditu:

- 1.- Aholkularitza.
- 2.- Kompetentzia ebaluatzea.
- 3.- Kompetentzia egiaztatzea eta erregistratzea.

Lehenengo fasea: AHOLKULARITZA

Fase hori nahitaezkoa izango da. Aholkulariek lagunduko dute lan-esperientziaren eta/edo prestakuntzaren bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak identifikatzen eta Ebaluazio Batzordeari aurkezten.

Aholkulariak hezkuntza-profesionalak, prestakuntza-profesionalak edo egiaztapenaren xede diren konpetentzia-ataletako adituak izango dira, prozeduran prestakuntza izango dute eta beren lana egiteko egiaztagiri ofizialak izango dituzte.

Aholkulariak bilera baterako zitazioa egingo die inskribatutako pertsonei, posta elektronikoa bidalita edo egoki iritzitako beste bide bat erabilita.

Aholkularitza-fasean, **elkarrizketa profesionala** egingo da aholkularitza-helburuekin, eta aurrez aurre egingo da.

Aholkulariak, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ebaluazio Batzordeari zuzendutako txosten bat egingo du, eta orientagarria izango da. Txosten hori ez da loteslea; beraz, izangaiak ebaluazio-fasera igarotzea erabaki dezake.

Aholkulariak konpetentzia-ataletan egiaztatzeko aukeren berri emango dio, eta, hala nahi izanez gero, ebaluaziorako inskripzioa egingo dio.

Arrazoi justifikaturik gabe deitu dioten aholkularitza-saiora agertu ez bada, edo harekin harremanetan jarri ezin bada, prozeduran jarraitzeko eskubidea galduko du.

Bigarren fasea: KONPETENTZIAREN EBALUAZIOA

Ebaluazio-fasean, izangaien konpetentzia profesionala egiaztatuko da, Konpetentzien dossierrean eta Aholkularitzaren txostenean aurkeztutako ebidentziak kontuan hartuta.

Ebaluazioa Aholkularitza-txostena eta izangaiak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz egingo da, eta, hala badagokio, konpetentzia-ataletan eskatzen den konpetentzia profesionala ebaluatzeko beharrezko ebidentzia berriak bilduz.

Dossierren analisiaren eta balorazioaren emaitza honela baloratutako konpetentzia-ataletan zehaztuko da: **FROGATUAK, EZ FROGATUAK EDO ZALANTZAK.**

Ebaluazio Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu ebidentzia gehiago biltzea, izangaiari jakinaraziko zaio, **Banakako Ebaluazio Planaren** bidez, zein konpetentzia-atal **ZALANTZA** moduan baloratu diren, eta horretarako konpetentzia-probak egitea proposatuko zaio.

Banakako Ebaluazio Planean, ebaluatzaileak honako hauek zehaztuko ditu: izangaiaren datuak, Ebaluazio Batzordearenak, probak egiteko konpetentzia-atalak, probak egiteko erabiliko diren bitartekoak eta aurreikusitako ebaluazio-metodoak: probaren behaketa, ahozko eta/edo idatzizko galderak, etab. Azken batean, izangaia izango da proba horietan parte hartu nahi duen ala ez erabakiko duena.

Hirugarren fasea: KONPETENTZIA EGIAZTATZEA ETA ERREGISTRATZEA

Ebaluazio-fasea gainditu ondoren, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak konpetentzia profesionala erakutsi den konpetentzia-atal bakoitzaren egiaztapena egingo du.

Izangaiak, prozesuaren amaieran, bere espazio pertsonaletik deskargatu ahal izango du IKASGUNEAn.

4.- EGIAZTAPENAREN ONDORIOAK

Prozedura honen bidez eskuratutako konpetentzia-atal baten egiaztapenak egiaztapen partzial metagarriaren ondorioak izango ditu, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hala badagokio, dagokion **Lanbide Heziketako titulua** edo **profesionaltasun-ziurtagiria** lortzera bideratutako prestakuntza osatzeko helburuarekin.

Administrazio eskudunak aitortuko ditu egiaztatutako konpetentzia-atalak, eta ondorio hauek izango dituzte:

- a) Dagozkion lanbide-moduluak baliozkotzea, indarrean dagoen eta titulu bakoitzean ezartzen den araudiaren arabera.
- b) Profesionaltasun-ziurtagiriaren konpetentzia-ataleki lotutako prestakuntza-moduluetatik salbuestea, indarrean dagoen araudiaren arabera, ziurtagiri bakoitzean ezartzen dena.

5.- PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Parte-hartzaileen eskubideak

- Prozeduran sartzeko aukera-berdintasuna.
- Prozeduran sartzea borondatezkoa izango da, eta ebaluazioaren emaitzak isilpekoak.
- Aholkularitza-fasea amaitu ondoren, parte-hartzaileek ebaluazio-fasera pasatzea erabaki dezakete.
- Ebaluatutako parte-hartzaileei ebaluazioaren emaitzen berri emango zaie, eta eskubidea izango dute erreklamazioa aurkezteko Ebaluazio Batzordean eta, hala badagokio, gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko administrazio eskuduneari.
- Egiaztatutako konpetentzia-ataleki dagokien egiaztagiria jasotzea.
- Prozedura izapidetzean egiten den datu pertsonalen tratamendu orok Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa errespetatuko du.

Parte-hartzaileen betebeharrak

- Prozeduran izena ematea.
- Prozeduran eskatzen den dokumentazioa aurkeztea.
- Aholkularien eta ebaluatzaileen jarraibideak betetzea, prozedura errazteko.

